



## ESLEIPEN TELEMATIKOA

### **NORENTZAT DA ABUZTUKO ESLEIPEN TELEMATIKOA?**

Pertsonal ordezkorentzat soilik. Finkoentzat, LEP artekoentzat eta finko ez indefinidoentzat kudeaketa telematikoa egin da ekainean.

### **DERRIGORTUA NAGO PARTE HARTZEN?**

Hezkuntza Sailak nahitaez parte hartzeko puntuazio minimoa zehaztuko du, uztailaren bigarren hamabostaldian argitaratuko duen ebazpenaren bitartez.

### **DEITUA EZ BANAGO, PARTE HARTU AHAL DUT?**

Bai, ordezkoek, arestian aipatutako puntuazio minimoa izan ezean, borondatez parte har dezakete. Langile hauei, esleipen-prozeduran aukeratutako lanpostuak bakarrik hartuko zaizkie aintzat, eta ez zaie inolaz ere derrigorrean esleituko lanpostu bat.

### **SUSPENSION TRANSITORIAN NAGO, PARTE HARTU BEHARKO DUT?**

Printzipioz, bai. "Suspension transitoria" egoeran bazaude, eta horrela jarraitu nahi baduzu, Sailari jakinarazi beharko diozu. Horrela egin ezean, esleipenerako "disponible" moduan egongo zara. Kontuz, hau gertatuz gero, eta eskaera orria betetzen ez baduzu, ofiziozko lanpostu bat esleituko baitzaizu.

### **NOIZ IZANGO DA?**

Prozedura telematikoan eskaerak egiteko epeak abuztuaren 19tik (9.30) 21ra (15.00) arte iraungo du. Eragozpenak saihesteko, ez da komeni azken egunerako uztea. Horrela, balizko arazoak suertatuko balira, hauei irtenbidea emateko denbora egongo litzateke.

### **NOIZ IKUSI AHALKO DITUT ESLEITU BEHARREKO LANPOSTUAK?**

Prozedurari hasiera emango dion ebazpenarekin batera argitaratuko dira.

### **ZER DA BIRBAREMAZIO BEREZIA ETA ZER ALDAKETA EGIN AHAL DITUT BERTAN?**

Lurraldea eta lanaldi mota aldatzeko aukera egongo da, eta egindako aldaketa hauek, prozedura telematikorako soilik egongo dira indarrean. Irailaren 1etik aurrera, apirileko birbaremazioetan zehaztutakoa hartuko da kontuan. 50 km edo urrunago dagoen lanpostu bati uko egiteko aukera egongo ez denez, posible izango da lanaldi partzialak Berritzeguneka aukeratzea. Birbaremazio berezia, uztailaren 3tik 9ra izango da.

### **NON EGIN BEHAR DUT ESKAERA?**

Irakaslegunean aurkituko duzu aplikazioa.

### **NOLA BETE BEHAR DUT ESKAERA?**

Eskabideak datuak sartzeko 500 lerro izango ditu. Lerroak betetzeko, eskaera zehatzak (ikastetxeak...) edo eskaera generikoak (lurraldea, destinoa..) jar daitezke.

### **LANPOSTU GUZTIAK AIPATU BEHAR DITUT?**

Ez da derrigorrezkoa, bai ordea, komenigarria. Kontuan izan, lanpostuak esleitzeko momentuan, eta guztiak sartu ez badituzu, aukeratutako guztiak esleituak izan badira jada, ofiziozko lanpostu bat

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus

esleituko zaizula.

### **ZER ESAN NAHI DU “OFIZIOZ LANPOSTU BAT” ESLEITZEAK?**

Sistemak berak, momentu horretan libre dauden lanpostuen artean bat esleituko duela esan nahi du. Honela ordenatuko lirateke derrigorrezko lanpostu hauek: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, hurrenez hurren; lanaldi osoa; lanaldi partziala; hizkuntza eskakizuna eta destinoa (lanpostuaren arabera atxikimendua: Berritzegunea edo ordezkari). Hezkuntza Arreta Terapeutikorako zentroak, Hauspoa proiektua duten ikastetxeak eta igerilekua duten Gorbeialde Ikastetxeko lanpostuak, derrigorrezko honetatik kanpo gelditzen dira.

### **POSIBLEA DA KOLEKTIBO DESBERDINETAKO ESLEIPENEAN PARTE HARTZEA?**

Kasu horretan, eskabide orri bat baino ez duzu bete behar. Bertan, kategoria desberdinetako lanpostuak sar ditzakezu eta aukeratutako ordena kontuan hartuko da, derrigorrezko edota borondatezko parte hartzea den kontuan izan gabe.

### **ESLEITUTAKO KONTRATUARI UKO EGIN AHAL DIOT?**

Ez, esleitutako lanpostuari uko egiteak zerrendetatik at gelditzea leharke. Bakarrik, baldin eta uko egitearen arrazoia aurreikusi ezin diren egoeren ondoriozkoa bada eta eskaerak egiteko epea hasi baino hiru egun lehenagotik lanpostuaz jabetu arte egin bada, eta borondatez egindako ekintza baten ondorioa ez bada.

### **ETA ESLEITUTAKO LANPOSTUA NIRE ETXEBIZITZATIK 50 KM BAINO URRUNAGO EGONEZ GERO?**

Ez da posible uko egitea. Horrelako egoerak saihesteko, Administrazioak birbaremazio epe berezi bat zabalduko du prozedura telematikorekin hasi aurretik; epe hori uztailearen 3tik uztailearen 9ra egongo da zabalik.

### **LANPOSTU BAT LORTU DUT, ORAIN ZER?**

Lehenik eta behin, kontuan izan, harreman laborala formalizatzeko lan kontratu bat sinatu beharko duzula. Sinatzeko momentuan, Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala kontsultatzeko baimena eman beharko diozula Administrazioari edo Adingabeak Babesteko Lege Organikoaren ziurtagiri negatiboa izatea eskatuko zaizula. Horrez gain, langile fisioterapeutak kolegiatuta egon beharko dira.



[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu